

A portrait of Guillermo Dorrónsoro, a man with dark hair, wearing a dark suit, white shirt, and a blue and white striped tie. He is looking directly at the camera with a slight smile. The background is a blurred outdoor setting with green foliage.

bai

ziurtagiridunen aldizkaria

GUILLERMO DORRONSORO

DEUSTO BUSINESS
SCHOOL-EKO DEKANOA

“Sustraiak eta hegoak
dituzten pertsonak
gustatzen zaizkit”

ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org

9. alea
2012ko urria



Rober Gutiérrez
Zuzendaria

@robergutierrez

ENPRESA SAREA, EUSKARAZ

Enpresa munduan elkarlanerako joera igartzen ari da; elkar ezagutzeko eta lankidetzaz sustatzeko saiakerak egiten ari dira. Hortik, mota askotariko ekimenak edo proiektuak sortzen ari dira, enpresen arteko elkarlanaren arrakasta-kasuak, alegia. Izan ere, oso aberasgarria da arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresek elkar ezagutzea eta esperientziak zein eskaintzak partekatzea. Enpresen artean elkarlana sustatzeaz gain -zerbitzu berriak eskaintzeko edo bakarrik garatu ezin daitezkeen proiektuak elkarrekin aurrera eramateko-, bezero edo hornitzaile berriak aurkitu daitezke.

Baina, ba al da produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituzten enpresen artean elkar ezagutzeko eta lan egiteko joerarik? Ba al da elkarlanean aritzeko eta esperientziak trukatzeko gogorik? Ba al da interes partikularretatik abiatuz proiektu kolektiboak garatzeko nahirik?

Hizkuntzaren sustapenaren, garapenaren eta normalizazioaren ikuspegitik berebiziko garrantzia duela esango nuke. Euskararen prestigio soziala areagotzeko ere baliagarria da, ez bairik gabe. Askotan, ez dugu ezagutzen zerbitzu jakin bat euskaraz ematen duen enpresarik eta enpresa erdaldun batera jo ohi da... Batzuetan, beranduegi konturatzen gara badela zerbitzu hori euskaraz eskaintzen duen enpresarik... Bestetik, irizpide ekonomikotik begiratuta, hemengo enpresen ekonomian elkarlana oso lagungarria izan daiteke. Negozioak euskaraz enfokatuko dituzten ekintzaileak behar ditugu, euskaraz lan egitea eta jakintza, esperientzia eta baliabideak partekatzea errentagarriak izango badira. Honela, bide berriak jorratzeko aukerak eta espazioak zabalduko zaizkio euskarari. Izan ere, orain arte euskaraz produkturik/ zerbitzurik eskaini ez duten enpresei gabezia bat dutela ikustarazi eta euskaraz negozioak egin daitezkeela eta merkatua badela erakutsi ahalko diegu.

Enpresarean proiektua abiatu dugu Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Donostiako Udalarekin eta Kutxa Gizarte Ekintzarekin lankidetzan. Azoka bikoitza izango da gainera; batetik Kursoalen urriaren 2an egingo dena eta bestetik, sarean, www.enpresarean.org webgunean beti zabalik egongo dena. Espero dut laster bidaide eta babesle gehiagorekin batera aritu ahal izatea, muga guztiak gaindituz, euskaraz aritu nahi duten enpresen arteko harremanak eta elkarlana sustatzeko.

Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkartea

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain T. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona T. 0559255041

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo T. 902430026

Pedro Asua, 27 behe - 01008 Gasteiz T. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa

31014 Iruñea T. 902430026

www.baieuskarari.org



@baieuskarari



www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkartea

Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

Argazkiak:

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartea,
Gipuzkoako Foru Aldundia, IK4 Research
Alliance, Telvent Arce Sistemas, Lander
Arbelaitz, Akting

Inprimatzailea:

Leitzaran

Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkartea

Lege gordailua:

SS-497-2010

IKERKETA BATEN ARABERA EUSKARA LEHIA ABANTAILA DELA USTE DU ENPRESEN % 38,2K

LANGUNEK, Hizkuntzen Industriaren alorreko Euskal Herriko enpresen elkar-teak, euskal enpresetako hizkuntzen erabilera, kudeaketa eta trebakuntzari buruz egindako erretratu aurkeztu berri du. Azterketa 2012ko lehen sei hilabetearen egin zuten Ikertaldearekin elkarlanean eta Lanbide-Hobetuzek finantzatuta.

Aurkezpen ekitaldian LANGUNEko arduradunek azaldu zutenenez, azterketaren xedea euskal enpresetako hizkuntzen erabilerrari, kudeaketari eta trebakuntzari buruzko erretratu eguneratua egitea izan da. Beti ere, hiru ikuspuntu hauek kontuan hartuta: enpresarena, langile/ikaslearena eta hizkuntza-industriako profesionalarena.

Erretratu hori egiteko 437 enpresetako ordezkariekin, hizkuntzak ikasten dituzten 300 langile/ikaslerekin eta hizkuntzen industriako hogeita hamar bat profesionalekin bildu direla azaldu dute.

Euskararen presentzia

Inkestak utzitako emaitzen artean, euskararen alorreko datu interesgarriak daude. Esate baterako, inkesta egin duten enpresen % 38,2k uste du eus-

kararen erabilera lehia-abantaila dela. Batez ere, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresetan dago halako ustea (% 40,1). Industria mailako enpresetan, aldiz, uste hori apalagoa da (% 36,4). Aipagarria da, era berean, zerbitzu-enpresen % 46,8k eta enpresa industrialen % 26,4k euskarazko material komertzialak erabiltzen dituztela.

Langunek egindako ikerketaren arabera, enpresaren barneko harremanetan euskarak ez du horrenbesteko presentzia. Ikerketan parte hartu duten enpresen % 53,8k gaztelania hutsez egiten ditu, eta beste % 41,4etan elebidunak dira (euskara/gaztelania). Euskara hutsez, aldiz, % 1,6 soilik komunikatzen da.

Langileak kontratatzeko garaian, enpresa gehienek (% 61,1ek) hizkuntza-gaitasunak kontuan hartzen dituztela onartu dute. Edozein kasutan, ez da zehazten zein hizkuntzari ematen zaion lehentasuna.

Hala ere, emaitzak argi utzi du gaur egun enpresetan hizkuntzen ezagutza lehentasunezkoa dela. Trebakuntzan egiten dituzten inbertsioei erreparatu baino ez dago hori horrela dela egiazta-



tzeko. Egia da, euskararen aurretik ageri direla ingelesa, frantsesa eta alemana ikasteko baliabideak jartzen dituztenak –urrenez urren, ikertutako enpresen % 87,6k, % 35,4k eta % 19,4k–. Euskararen inguruko trebakuntzak enpresen % 14,8an egiten dira, eta portzentajea % 26,4ra igozen da zerbitzuen kasuan.

Webguneen argazkia ere esanguratsua da oso. Internetek azken hamarkadan hartu duen protagonismoaren isla da. Esparru honetan adierazgarria da gaztelaniaren presentzia erabatekoa dela eta ingelesak (webguneen % 62,7 ingelesez dago) gaina hartzen diela euskarari (% 36,4 zerbitzu enpresetan eta % 20,6 industria sektorean), frantsesari (% 34,1) eta alemanari (% 18,2).



www.elhuyaraholkularitza.net
aholkularitza@elhuyar.com




ELHUYAR
aholkularitza

ELHUYAR Aholkularitza
eraldatzeko giltza



euskararen
normalizazioa



enakume eta gizonen
aukera berdintasuna



herritarren
parte-hartzea

TWITTER EUSKARAZ: IDEIAK ARGI DITUEN KOMUNITATE INDARTSUA



Orain dela urte pare bat, artean Twitter hizkuntza batean edo bitan soilik zegoenean, beste hizkuntza batzuetara itzultzeko asmoa zutela jakinarazi zuten.

Katalanak hasi ziren Twitter bere hizkuntzan eskatzen, eta oihartzun izugarria lortu zuten. Horrela, Twitterreko arduradunek hurrengo hizkuntzetako bat katalana izango zela agindu zieten. Bi aldiz pentsatu gabe, katalanen kanpaina oinarri hartu eta euskararekin ere gauza bera egitea erabaki zuen Lander Arbelaiz kazetariak. Sekulako arrakasta izan zuen kanpainak, eta 2.000 firma inguru lortu zituen denbora gutxian. Euskal erabiltzaileen komunitateak [#twittereuskaraz](#) traola erabili zuen sare soziala euskarara itzultzea eskatzeko -kanpaina gehiago izan ziren, besteak beste, Joseba Kamiok abiatutako [Maite zaitugu, maite gaitazu zuk ere](#) -.

Joan den abuztuaren 6tik Twitterren euskarazko bertsioa eskuragarri dago. Twitterrek erabiltzaileen esku utzi zuen hau itzultzeko lana, eta batzuek gehiago eta besteak gutxiago, jende askok lagundu du. Orain, euskarazko profila erabili nahi izanez gero, konfiguraziora jo eta hizkuntza aldatu besterik ez dago.

Egun 34 hizkuntzatan dago sare soziala, eta katalana eta euskara dira estaturik ez duten hizkuntza bakarrak. Horietan guztietan, euskara da txikiena. Egitasmo honen sustatzailea izan da Lander Arbelaiz eta berarekin hitz egin dugu.

LANDER ARBELAIZ

“Euskarak ehundaka aukera berri ditu sarean egunero”

Zer garrantzia du Twitter euskaraz izateak?

Garrantzia du, baina neurrian. Ez du euskara salbatuko, baina Twitter Interneteko gune garrantzitsuenetako bat dela kontuan izanik, Twitterrek euskarari atea zabaltzea lorpen polita da.

Euskarak ba al du indarrik sareko merkatuan?

Twitterren moduko enpresen potentzialik handienetakoa erabiltzaileak pozik edukitzea da. Hainbat erabiltzaile mobilizatzen hasten badira eta oihartzuna lortzen badute, sarean hots txarrak hasi aurretik, hobe Twitter bezalako enpresa batentzat erabiltzaileak konforme edukitzea. Beraz, euskarak hizkuntza bezala, ez dakit sarean indarrik duen, baina euskaldunok, erabiltzaile garen heinean, bai.

Zer abantaila ekarri dizkio sareak euskarari?

Abantaila handiak. Batez ere, egunkariak, telebista, irrata eta abar asmatu zirenean ez bezala, Internet sortu zenean, ideiak argi zituzten zenbait jenderi esker, euskara berehala sartu zen Interneteko trenean. Horrez gain, indar handiak egiten dira trenetik ez jaitsi eta bagoietan aurrera egiteko. Bisibilitatea ematen



dio sareak euskarari, eta euskal hiztunei berriz, gure hizkuntza mundu mailako proiektu handietan kontutan hartzen dutelako sentimendua ere bai, askotan Espainia eta Frantziak gurekiko ez duten errespetua lortzen dugulako haratagotik. Horren adibide dira Google, Youtube, Facebook, Wordpress, Twitter eta abar euskaraz izatea. Horrez gain, sareak euskaraz bizitzeko aukera ematen dio ingurune ez-euskaldunean bizi denari.

Eta harremanetan eragin dezake?

Sareak normalean elkar ezagutuko ez zuten euskaldunen artean harremanak errazten ditu, eta hor euskarak ehundaka aukera berri ditu sarean egunero. Adibide bat jarriko dizut. Elkar ezagutzen ez duten bi pertsona Twitter bidez ezagutzen dira eta euskaraz hasten dira, bietako batek bestea euskaraz ari dela ikusi duelako. Erabakia inkontzienteki hartu arren, listo, euskaraz mintzatuko dira betirako ziurrenik, baita kalean ere. Hori argi izan eta probestu beharra dago.

EUSKARAZ BIZI PRAKTIKATIK ETA PATRIKATIK



Bizi dugun garairen ezaugarrietako bat da bertakoa bezain gertukoa egin zaigula urrutikoa, eta horrek berarekin ekarri du arrotasuna baztertu eta aniztasuna gure ezaugarri egitea. Guztia dago elkarlotuta, eta guztiok gaude harremanetan, internet da horren lekuko. Gizakiok gure artean aritu eta elkar ulertzeko beharrak eraginda perfektionatu ditugu horretarako baliabideak. Tresnak ugari bai, baina guztietan garrantzitsuena hizkuntza izanik, nahikoa arreta jarri al diogu egiten dugun hizkuntza-kudeaketari?

Garai batean 'lingua franca' erabiltzeraz jo izan zen, nagusiki botere politiko eta ekonomikoek ezarritako indar-harremanek hala erabakita. Egun, egitura politikoak ez ezik, sistema eta harreman ekonomikoak ere demokratizatu beharraz gizartean ozen gogoetatzen ari delarik, nahitaezkoa bihurtu da gizataldeen eta pertsonen eskubideak aitortzea, eta jendarte harreman parekide, orekatu eta errespetuzkoak bultzatzea. Ildo horretan, bereziki garrantzitsua da hizkuntzen kudeaketa egokia egitea, pertsonen arteko komunikazioa bideratzen duten aldetik. Hain zuzen ere, Euskal Herrian desorekatuta daude euskara berezko eta (zati batean) ofizialaren eta frantses eta gaztelania hegemonikoen arteko indar-harremanak eta presentzia bizitza sozilean.

Euskaldun kopurua handitzen jarraitzearekin batera, euskara erabiltzeko ahala eta aukerak eskaintzea dira instituzioen ardurak. Horregatik, euskaraz bizitzera iristeko bidean, euskaldunok euskaraz lan egin eta enpresen arteko lan harremanak euskaraz izatea posible egin nahi dugu. Funtsezkoa da bizitza sozilean eremu eta funtzio berriak euskalduntzea etengabe, euskaldunok praktikatik eta patrikatik nabaritzeko euskararen garapena.

Aukera hau baliatu nahi nuke inguru ekonomiko zail honetan lan bila ari diren herritarrei dei egiteko beren prestakuntzari eutsi eta, bereziki, euskara gaitasuna hobe dezaten. Euskara zenbat eta hedatuago egon, orduan eta behar handiagoa izango baituzue enpresek euskaraz gaitutako langileak integratzeko zuen egituretan. Gure aldetik, laguntzak bideratuko dizkiegu euskara ikastea errazagoa izan dezaten.

Arlo sozioekonomikoan eskua eta eragina duzuen enpresen eta gizarte eragileon ardura ere bada herritarren eskariari erantzutea, eta hizkuntza kudeaketa egokia integratzen duen ikuspegi komertziala barneratzea. Organizazioen kudeaketan trebetasun linguistikoak

barneratuz, enpresek posizio hobea eskuratzen duzue zuen arteko lehian. Argi dago harremankidearen hizkuntzan elkarerraginez errazago itxi daitezkeela bezeroarekiko tratua.

Gipuzkoa lurralde euskalduna izanik, bertako enpresa asko bidegileak zarete euskara zuen ohiko funtzionamenduan txertatzen. Enpresa ugari, dagoeneko, eskaintzen dituzue zuen zerbitzuak euskaraz, gizartean dagoen eskariaren aurrean arduratsu, eta euskarak eskaintzen dituen aukerekin erne. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek, Donostiako Udalak, Kutxa Fundazioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalegin hori ikusgarri egin nahi dugu ENPRESAREAN azokaren bidez, kontaktuan jarritzeko bezeroak eta zerbitzu emailak. Gonbidatuta zaudete bertara!

ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako
zuzendaria



GUILLERMO DORRONSORO

Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien
Fakultateko dekanoa eta IK4ko presidente-ordea

Guillermo Dorronsoro (Sestao, 1965) Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak antolatu duen Enpresarean Azokan izango da urriaren 2an, **Sustraiak han dituen**. **Globalizazioa bertako begiez ikusita** izena jarri dion hitzaldia ematen. Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Dekano izendatu berritan, A8an “bizi dela” onartu digu, “Donostiatik Bilbora eta Bilbotik Donostiara”. Lanpostu berria IK4ko presidente-orde karguarekin eta beste egitasmo pribatuetan egiten dituen kolaborazioekin uztartzen du.

Enpresarean Azokako lehenengo edizioan Sustraiak han dituen. **Globalizazioa bertako begiez ikusita** izeneko hitzaldia emango duzu. Zein izango da hitzaldiaren funtsa?

Askotan errepikatzen dudan kontzeptua eramango dut: sustraiak eta hegoak dituzten pertsonak behar ditugula.

Sustraiak eta hegoak?

Hegoak kanpora joan eta herrialde ezberdinetako esperientziak ezagutzera joateko eta hemengoa aberasteko, eta sustraiak, nora itzuli nahi duzun jakiteko eta joaten zaren lekura joanda ere, bertako ohiturak eta sustraiak errespetatzeko.

Entzuleak zein ideiarekin bueltatu behar dute etxera?

Sustraiak ditugula eta sustrai horiek enpresetan txertatu behar direla jabetzen badira pozik joango naiz etxera.

Sustraiak galdu ditugula uste duzu?

Horrela pentsatzen dut, bai. Orain arte izan ditugun kudeatzaileak diruagatik baino ez dira mugitu, dirua non kudeatzaileak han. Kapitalismo global honetan, gainera, jarrera horiek saritu dituzte eta horregatik gaude gauden bezala. Eta kontuz, dirua ere beharrezkoa da, baina beste motore asko daude –familia, lagunak, auzoa, eta abar–, eta ho-

riek indartu eta egitasmoetan txertatu behar ditugu.

Ez al da mezu kontrajarria?

Izan liteke, baina bi kontzeptuak guztiz bateragarriak dira. Jarrera horrek konpromisoarekin du lotura, eta normalean zerbaitekin konprometitzen den pertsona edozerekin konprometitzen da. Nik horrelakoak ditut gogoko.

Zein iritzi daukazu Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak antolatu duen Enpresarean Azokaz?

Etorkizun handia ikusten diot zerbitzuak eta produktuak euskaraz ekoizten

“Hizkuntza sustraiaren parte da, zaindu beharreko aldagaia. Ikusi dugu zer gertatzen den zaintzen ez denean, galdetu bestela nire belaunaldiari”

dituzten enpresen arteko azokari. Azkeneko hamarkada honetan, batez ere Gipuzkoan lanean nagoenetik, ohartu naiz enpresetan badagoela euskararekiko atxikimendua eta kezka, badagoela kontzientzia bat, Ziurtagiriak eskuratzen dituztela... Eta bide batez, gabezia bat dudala jabetu naiz: euskaraz aritzeko gaitasun eza. Are larriago, gabezia horrek nire mezuarekin talka egiten duela uste dut.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek egiten duen lana ezagutzen duzu?

Bai, eta txapela kentzeko modukoa dela iruditzen zait. Euskararen normalizazioan funtsezkoa da lan-mundua euskalduntzea, eta zentzu horretan Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek egiten duen akuilu lana nabarmendu nahi nuke. Ni bezalako pertsonen zubiak jartzen dizkigute euskara ikasteko, eta ez hori bakarrik, euskarak prestigioa duela, euskaraz aritzea garrantzitsua dela, eguneroko lan-jardunean euskaraz jende asko ari dela edota euskarak atentzioa behar duela ikustarazten du eta oso positiboa iruditzen zait.

Euskarak ezberdintzen gaituela argi dago. Baina euskarak hobeak egiten gaituela uste duzu?

Zalantza izpirik gabe. Hiru puntu nabarmenduko nituzke: lehena, euskara ama hizkuntza duen jendea bizi den ingurune edo esparru batean, haiekin euskaraz modu naturalean aritzeko gaitasuna izatea balio erantsia da guztiok atsegin dugulako geure hizkuntzan hitz egitea; bigarrena, erakundeetan gauza bera gertatzen da. Komunikazio bideak erraztu

behar dira, eta euskaraz pentsatzen dutenei euskaraz hitz egiteko aukera ematea aberasgarria da komunikazio hobetzen duelako; eta azkenik, lehen aipatu dudan sustraiaren kontua. Gure sustraietan sinisten badugu, hots, gure lurraldean, gure kulturaren, edota gure hizkuntzan, koherenteak izan behar dugu. Hizkuntza sustraiaren parte da, eta aldagai garrantzitsua, zaindu beharrekoa. Eta ikusi dugu zer gertatzen den zaintzen ez dugunean, galdetu bestela nire belaunaldiari.

“Komunikazio bideak erraztu behar dira, eta euskaraz pentsatzen dutenei euskaraz hitz egiteko aukera ematea aberasgarria da komunikazio hobetzen duelako”

Gaiaz erabat aldatuz, Deustuko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko Dekano kargua estreintatu duzu ikasturte honetan. Zer moduz? Zeregin berrietara egokitzen ari naiz, eta momentuz nahikoa lan badut. Deustuko Unibertsitateak Donostian eta Bilbon dauzka egoitzak, eta A8an bizi naizen sentsazioa dut, Bilbotik Donostiara eta Donostiatik Bilbora. Nire ibilbide profesionala nahiko dispertsoa izan da, lanpostu ugari izan ditudalako, eta etapa berri guztietan galdera bera egiten diot nire buruari: hemendik joaten naizenean zein ondare utziko dut?

Eta zerekin konformatuko zinateke?

Aritu naizen enpresa guztietan izan dudana obsesio berarekin jarraitzen dut:

komunikazioa hobetzea. Nik ez ditut enpresak edo elkarteak ikusten, pertsonak ikusten ditut. Pertsona horiek egitasmoak partekatzen dituzte, eta horrek ematen dio balioa enpresari. Ikuspuntuak partekatu behar dira, inoiz ez dagoelako bakarra eta absolutua. Zentzu horretan, ikuspuntu ezberdinak ulertzeko gaitasun handia daukat, kontrajarriak izan arren. Biak uztartzen ahalegintzen naiz, aberasgarriak izan daitezkeelakoan.

Komunikazioa hobetzeaz gain, zer daukazu buruan?

Unibertsitate mundua aldatzen ari da, hezkuntza sistema bezala, eta aldaketa horietara egokitu beharra dago, eta horretan gabilta. Ekonomia eta enpresa munduan kudeaketa sistema izugarri ari da aldatzen eta hori ere kontuan hartu behar da. Aldaketa guzti horietara egokitzea eta erronka berriei bide ematea da beste zereginetako bat.

Eta aldaketa prozesu honetan komunitate guztiaren parte-hartzea ezinbestekoa da. Prozesu honetan bi faktore uztartu behar dira. Batetik, sustraiaren balioa ulertu eta potentziatu behar da, eta bestetik, garaietara egokitzen jakin behar da eta aldaketa guztiak integratzen asmatu. Globalizazioak

“Dirua beharrezkoa da, baina beste motore asko daude —familia, lagunak, auzoa, eta abar—, eta horiek indartu eta egitasmoetan txertatu behar ditugu”

horrenbesteko indarra duen mundu honetan, hoberenak izaten ahalegindu behar dugu, erreferenteak izaten, Txinako ikasleek hona etortzea lortu behar dugu, hemengoa unibertsitaterik onena delako.

Eta bide onean zoazte?

Bai, baina halako aldaketek denbora behar dute. Eta gauzak aldatzeko gakoa jendearen parte-hartzea sustatzea da; jendeari erantzukizuna ematen diozunean hazi egiten da, eta izugarriko proiektzioa duela ikusten duzu, garrantzitsua sentitzen delako. Nik hori ikusi dut, eta kontrako egoerak ere ezagutu ditut.

Barkatuko didazu, baina ezin dut elkarrizketa jarraitu krisi ekonomikoa aipatu gabe. Irakurri ditut egin dizkizuten

hainbat elkarrizketa, eta azken aldian ez diot inori irakurri halako mezu positiborik. Gure irakurle asko enpresa eta komertzioetako arduradunak eta langileak direla kontuan hartuta, mezu hori errepikatzea nahiko nuke.

Perspektiba kontua da. Epe laburrera begiratzen ohituta gaude, ez daukagu burua altxa eta etorkizunean pentsatzeko ohiturarik. Ez dut ukatuko, datozen hilabeteak gogorak izango dira. Baina burua altxa eta etorkizunari begiratzen badiot, eta gure historiari begiratzen badiot, baikor izateko arrazoiak dauzkagula uste dut.

Historiari begiratzen diozula esan duzu.

Bai, eta azalduko dizut. Nik ez dut imajinazioa landu behar krisialditik aterako garelako irudikatzeko. Alderantziz, atzera begiratzen badut, krisi gehiago izan

direla ohartzen naiz, eta krisi horietatik indarberrituta aterara. Krisialdi guztiak amaitzean bi talde bereizten dira: indartuta aterara direnena eta lurjota geratu direnena. Gure herriak beti jakin izan du krisialdietatik indartuta ateratzen: lana eginez, sakrifikatuz, esfortzu ikaragarriarekin, konpromisoarekin, elkartasunez, errebelatuz, epe luzeko egitasmoak landuz... hau da, majo lana eginez. Baina aterara da.

(fr)

«J'aime les personnes qui voyagent tout en gardant leur racines»

Guillermo Dorronsoro interviendra le 2 octobre dans le cadre du salon organisé par l'Association du Label Bai Euskarari. Sa conférence aura comme titre "Sustraiak han dituen. Globalizazioa bertako begiez ikusita" (Les racines et la globalisation d'un point de vue local). "J'aime les personnes qui voyagent tout en gardant leur racines. Ils ont des ailes pour voyager et vivre d'autres expériences et donc pour s'enrichir et des racines, pour pouvoir retourner vers leur environnement naturel ».

Il rajoute que la langue basque est une racine et qu'il faut la surveiller « car nous voyons ce qui arrive quand nous ne faisons pas attention à la langue, il suffit de le demander aux gens de ma génération ».

L'actuelle crise économique a été aussi un des sujets de discussion. Son message est positif, car la société basque a déjà rebondi face à des situations semblables : « cela dépend de la perspective, au lieu de regarder à court terme nous devons regarder à long terme. Les prochains mois seront difficiles, mais en travaillant, en faisant des sacrifices, des compromis, en étant solidaire, rebelle, nous allons nous en sortir ».



“Parte-hartzea sustatu behar da. Jendeari erantzukizuna ematen diozunean hazi egiten da, garrantzitsua sentitzen delako. Eta izugarrizko proiektzioa duela ikusten duzu”

Zure iritziz, zein da krisi garaiak utziko duen arazo handiena?

Gizartea bi multzotan banatzen ari da; batetik, lana, soldata... dauzkagunak gaude, eta beste aldean lanik aurkitu ezinik dabilzanak edota langabezia geratu direnak daude. Lubaki hori konpontzea nekeza izango da.

Gure irakurleei aholkurik ematen auzartzen al zara?

Kasu bakoitza aztertu beharko litza-teke, errezeta orokorrik ez dagoelako. Baina hori esanda, iruditzen zait bide berriak zabaltzeko alde aurretiko jarra behar beharrezkoa dela. Krisi garai honek aldaketa estrukturalak ekarriko dituela konbentzita nago, eta aldaketa horiek barneratu eta garai berrietara moldatu beharra dago. Gainontzean joko kanpo geratzeko arriskua areagotu egiten da.

Orduan, zure iritziz, zer egin beharko lukete?

Lehenik, aldaketa egun batetik bestera ez dela etorriko kontzientziatzea. Bestalde, elkarlanerako sinergiak bilatu

behar dira. Azken aldi oso indibidualistak bihurtu gara, eta bakarrik ez dugu ezer lortuko. Beste aholku bat da elkar-teetara gerturatzea, eta elkarteek ematen duten laguntza eta babesa baliatzea. Merkataria baldin bazara, merkataria elkartera jo eta galdetu zertan ari diren, laguntza eskatu...

Eskerrik asko, Guillermo. Beste ezer gaineratu nahiko zenuke?

Eskerrak eman nahiko nituzke ni bezalako pertsona bat Enpresarean Azokara gonbidatzeagatik eta zuen aldizkarian tartetxo bat egiteagatik. Euskararekin zorretan nagoela sentitzen dut.



(es)

“Me gustan las personas que tengan ganas de volar, pero a su vez sientan sus raíces”

Guillermo Dorronsoro ha sido invitado a participar en la Feria Enpresarean organizada por Bai Euskarari Ziurtagiariaren Elkarte, que se celebrará el 2 de octubre en el Kursaal. El Decano de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales de la Universidad de Deusto ofrecerá una conferencia bajo el título Raíces y globalización desde el punto de vista local. En ella, se descubre ante las personas emprendedoras, con ganas de volar, que a su vez sienten sus raíces. “Alas para conocer nuevas experiencias enriquecedoras y raíces para volver al entorno natural”.

En ese sentido, señala que el euskera es parte de nuestras raíces y que es necesario cuidar nuestra lengua “para que no vuelva a suceder lo de antaño”.

Ante la actual crisis económica, Dorronsoro se muestra optimista “porque hemos sido capaces de resolver situaciones similares”. En su opinión es cuestión de perspectiva. “Tenemos que mirar a largo plazo. Vienen meses duros, pero con trabajo, sacrificio, esfuerzo, compromiso, solidaridad, rebelión y con perspectiva de futuro saldremos adelante. Estoy convencido”.

TELVENT: TOKIAN TOKIKO KULTURA ETA HIZKUNTZAK ERRESPETATUZ

Trafikoaren eta garraioa publikoaren, energiaren, ingurumenaren eta nekazaritzaren alorretan lan egiten du Telvent enpresak. Soluzio teknologikoak (IT) eta informazio zerbitzuak eskaintzen dizkie munduko enpresa liderrei. Javier Aguirre Heriz Telvent Arce Sistemak-eko Zuzendari Nagusia da eta berarekin hitz egin dugu.

Telvent-ek Madrilen du jatorria, nahiz eta betidanik izan dituen egoitzak Euskal Herrian: 60an sortu zen enpresa eta 80ko hamarralditik aurrera sartu zen gurean, eta bertan ezarri du egoitza nagusia mundu mailako enpresei ordainsari eta garraio publikoarentzat soluzioak emateko. Egoitza nagusia Bilbon du, baina Gasteizen eta Donostian ere baditu lantokiak. 168 langile ari dira guztira lanean hiru egoitza horietan. Munduan, ordea, bost kontinenteetan dago Telvent eta 6.000 langile inguru ditu guztira, besteak beste New York, Sao Paulo, Beijing edota Jeddah-en garatzen dituzten proiektuak gauzatzeko. Baina Aguirrek azaldu duenez, Telvent enpre-

sa ez dago atzerrian krisiaren ondorioz: “1990etik gaude atzerrian. Atzerrian egoteak on egiten dio enpresari, baina gure helburua negozioa handitzea da bai Euskal Herrian eta baita atzerrian ere”.

Aguirreraren esanetan, Euskal Herriko hiru egoitzetan, batez ere, trafiko eta garraio publikoa gestionatzeko sistemak egiten dituzte: hirietako trafikoaren kontrolerako zentroak, errepideetako trafikoa kontrolatzeko zentroak, ordainlekue-tako sistemak, *ticketing* edo garraio publikoko txartelak kudeatzeko sistema...

Proiektu berritzaileak

Euskal Herriko egoitzetan bestelako hainbat proiektu berritzaile ere ari dira diseinatzeko. Adibidez, azken urteetan AEBetarako hainbat autobideetan *free flow* soluzio teknologikoa garatu dute, ordainketa prozesua errazteko sistema. Teknologia hau, esate baterako, Bilboko Supersurren ezarri dute. “Beste adibide bat Donostibus-ekin garatzen ari garen proiektu pilotua da, erabiltzaileek txartelak telefono mugikorrekin ordaindu ahal ditzaten. Hiriak erosoago egin nahi ditugu, mugikortasuna erraztu”.



“Gure helburua da Euskal Herrian nahiz atzerrian negozioa handitzea”

Hizkuntzak ere oso kontuak izaten ditu Telvent-ek. Aguirrek adierazi digunez, enpresa munduko leku askotan dago eta tokian tokiko kulturari eta hizkuntzari garrantzia eman behar zaio: “Guretzat bezeroekin euren hizkuntzan aritzea oinarri-oinarrizkoa da. Zentzu horretan oso garrantzitsua da Bai Euskarari enpresa eta euskara uztartzen eta enpresetan hizkuntza normalizatzen laguntzen egiten ari den lana”.

TELVENT ARCE SISTEMAS, S.A.: Bai Euskarari Ziurtagiria “Euskararen bidean” maila.



OOH! PARI TXARTELA

Zenbatekoa zeure esku. 15 eurotik hasita
Gastatu saldoa zeure erritmora
Gastua informazio gunetan kontrolatu



ENPRESAREAN:

ENPRESEN ARTEKO SAREAK EUSKARAZ




Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartek duela bi urte, **Enpresarean** egitasmoa jarri zuen martxan. **Enpresarean** egitasmoaren helburua da arlo bereko edo beste arlo batzuetako enpresen artean elkarlana sustatzea, esperientziak trukatzeko eta euskararen erabilerak negozio munduan dituen onurak agerian uztea. Hori guztia, baina, euskara elementu komuntzat duten enpresa, elkarte eta entitateen artean.

Egitasmo horren barnean, urriaren 2an **Enpresarean**, euskaraz ari-zen diren enpresen arteko azoka egingo da Donostiako Kursaal Jauregian, Gipuzko Foru Aldundiarekin, Donostiako Udalarekin eta Kutxa Gizarte Ekintzarekin elkarlanean antolatuta. Azoka honen bidez enpresei negozio-aukerak handitu eta proiektu berriak sortzeko abaguneak eman nahi zaizkie, euskaratik eta euskaraz.

Sektore guztietako enpresek hartuko dute parte **Enpresarean** Azokan. Eta guztien elkargune euskara izango da euren produktuak edo zerbitzuak euskaraz eskaintzen dituztelako batzuek, eta euskaraz lan egiten dutelako bestiek.

Informazio gehiago:
www.enpresarean.org
 @enpresarean
www.facebook.com/enpresarean



TALLERES
MITXELENA, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa
 Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

ELKARRIZKETA: UNAI BILBAO, Akting enpresako I-G-B burua

Enpresarean azokan izango zarete. Zergatik erabaki duzue bertan parte hartzea? Enpresarean-en berri izan genuenetik oso ideia ona iruditu zitzaigun egitasmoa, benetan garrantzitsua da euskaraz lan egiten dugun enpresen artean elkar-lana sustatzea. Bertatik proiektu interesgarriak atera daitezkeela pentsatzen dugu.

Gu euskaraz lan egiten dugun ingeniari-tza enpresa gara eta mundu teknologikoaren barruan euskaraz lan egitearen esperientzia zabaldu nahiko genuke. Proiektu berritzaileak garatzen ditugu eta hauek ere euskaraz eta euskaldunentzat egitea benetan oso interesgarria iruditzen zaigu.

Zuen ustez zer eskain diezaieke Enpresarean azokak euskal enpresei eta euskal gizarteari?

Euskal enpresen artean elkar ezagutzeko aukera bikaina da, Euskal Herrian benetan gauza interesgarriak egiten dituzten enpresez inguratuta gaude eta gure artean kontaktuan jartzeko balioko duela uste dugu. Jendeak euskaraz lan egiten duten enpresak daudela ikusiko du eta proiekturen bat buruan badu hemengo enpresa batekin egiten dezakeela jakingo du.

Zer espero duzue ateratzea azoka honetatik?

Gurekin elkarlanean proiektuak garatu ditzaketen enpresa asko ezagutuko ditugula uste dugu eta aukera hori ahal den ondoen aprobetxatzen ahaleginduko gara.

“Gurekin elkarlanean proiektuak garatu ditzaketen enpresa asko ezagutzea espero dugu”

Akting-eko bazkideak ezkerretik eskubira: Paul Minguez-Olaondo, Nagore Guarretxena, Iban Agirre eta Unai Bilbao



Zuek gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez ez ezik, euskaraz ere lan egiten duzue. Zein da euskararekin duzuen harremana?

Enpresa osatzen dugun kide guztiak euskal hiztunak gara eta egunero gure artean euskara erabiltzen dugu lanean aritzeko. Bestalde, gure zerbitzua ere euskaraz ematen dugu eta bezero askorekin daukagun harremana euskara hutsean egiten dugu.

Euskarak abantailarik ematen al die enpresei? Zein?

Euskal Herrian zerbitzuak eskaintzeko garaian garrantzitsua da euskaraz aritzeko aukera ematea, hemen jende askoren hizkuntza euskara da eta bakoitzak nahi duen hizkuntzan enpresa batengana joateko aukera zenbait bezerok asko estimatzen dute.

Etorkizunera begira nola ikusten duzu euskaraz ere lan egiten duten enpresen merkatua?

Euskaraz lan egiten duten enpresen merkatua Euskal Herrikoa da, hemen lan egiteko oso garrantzitsua den merkatua da. Hala ere, gaur egun, beste hizkuntzetan lan egitea ezinbestekoa da, Euskal Herrikan kanpo ere lan asko dagoelako.

Besterik esan nahi?

Enpresarean bezalako ekitaldien bidez euskaraz lan egiten dugun enpresak ezagutzera emateko aukera daukagu eta jendeak Euskal Herrian ere proiektu berritzaileak garatzen direla jakiteko oso garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Gure artean elkarlanerako bidea irekitzen bada, benetan gauza interesgarriak eraikiko ditugu zalantzarik gabe.



Erronketan aurrera egiten laguntzeko gaude.

Euskara planen bidez hizkuntzak eraginkortasunez kudeatzen dituen talde profesionala gara.

- HIZKUNTZA AHOLKULARITZA
- EUSKARA PLANAK (enpresa, administrazio eta bestelakoetan)
- EUSKARA PRESTAKUNTZAKO MODULU BEREZIAK
- ITZULPEN ZERBITZUAK

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO
KOOPERATIBA

www.emun.com
www.lantalan.com

EGITARAUA



ORDUTEGIA	1. Aretoa	2. Aretoa	3. Aretoa <i>Lehialkartasuna</i>	Enpresen Erakusleihoa (15 stand)
8:45-9:15	Harrera eta dokumentazioaren banaketa			
9:15-9:45		Aurkezpen instituzionala: GFA, Donostiako Udala, KUTXA <i>Fundazioa, eta Ziurtagiriaren Elkarte</i>		
9:45-10:45		<i>Guillermo Dorronsoro</i> "Sustraiak han dituen - Globalizazioa bertako begiez ikusita"		<i>Ziurtagiriaren Elkarte</i> <i>NEKATUR</i>
10:45-11:15	Kafea + Bat-bateko aurkezpenetarako kantoia (Speaker corner) SALDU ZURE IDEIA			<i>Komunikazioa, hizkuntza paisaia, irudi korporatiboa</i> <i>Kultur Atelier</i>
	Esperientzia laburrak	Esperientzia laburrak		<i>HIRUDART</i>
11:15-11:35	<i>FREMAP: Euskararen garrantzia kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko. Euskara eta erantzukizun sozial korporatiboa.</i> <i>Hizlaria: Ismael Urteaga</i>	<i>LANEKI: Lanbide Heziketaren erroka berriak: ikastetxetik enpresara euskaraz.</i> <i>Hizlaria: Kepa Altube</i>		<i>Erakunde enpresarialak</i> <i>KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA</i> <i>CEDERNA-GARALUR</i>
11:35-11:45	<i>Euskara, enpresa munduan egin beharreko ahalegina</i> <i>Hizlaria: Kontseilua</i>	<i>IMH: 3+10 mintegiaren aurkezpena</i> <i>Hizlariak: Edurne Bilbao eta Mikel Urdangarin</i>		<i>Finantza entitateak:</i> <i>KUTXABANK</i>
11:45-11:55		<i>KUTXA Fundazioa</i>		<i>Hizkuntza Zerbitzuak:</i> <i>AHIZE</i> <i>ARTEZ</i> <i>ELHUYAR</i> <i>EMUN</i>
11:55-12:05	<i>DI-DA Komunikakzioa</i> <i>Hizlaria: Gorka Berruetañe</i>	<i>LATZ TRESNAK</i> <i>Hizlaria: Onintza Agirre</i>		<i>Aholularitzak:</i> <i>BIDERA Zerbitzuak</i>
12:05-12:15	<i>ELDUA IEN</i> <i>Hizlaria: Larraitz Erize</i>	<i>LANGUNE</i> <i>Hizlaria: Josu Waliño</i>		
12:15-12:25	<i>EGUNEA</i> <i>Hizlaria: Julen Agirrezabalaga</i>	<i>OREKA IT</i> <i>Hizlaria: Iraitz Perez de Golarazena</i>		
12:25-12:35	<i>LACUNZA</i>	<i>EUTIK</i> <i>Hizlaria: Mikel Lasa</i>		<i>Informatika enpresak:</i> <i>BITARLAN</i>
12:35-12:45	<i>EUSKADIKO KUTXA</i>	<i>KOOPERATIBATU</i> <i>Hizlaria: Inaki Elkano</i>		
12:45-13:00	Atsedena + Bat-bateko aurkezpenetarako kantoia (Speaker corner) SALDU ZURE IDEIA			<i>Industria:</i> <i>ZERGATIK</i> <i>IMH</i>
13:00-14:00		<i>Eztabaida dezagun...</i> MAHAI-INGURUA Enpresa, sarea, euskara.. <i>BERRIA Taldea, Codesyntax, AKTING, GFAko Berrikuntza diputatua</i>		<i>Laneko prestakuntza:</i> <i>Mondragon Lingua</i>
14:00-15:30	Bazkaria + Bat-bateko aurkezpenetarako kantoia (Speaker corner) SALDU ZURE IDEIA			
15:30-16:30		K2K emozionando: <i>Asier Irazusta</i>		
16:30-18:30			<i>Lehialkartasuna</i> <i>COWORKINGA/ NETWORKINGA</i> <i>HUB! Donostiarekin lankidetzan</i>	

URRATS BIZIAK DURANGALDEAN KANPAINAREKIN ABIATU DA BIZKAIA ZIURTAGIRIA HEDATZEKO ERRONKA

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak Urrats Biziak Durangaldean kanpaina aurkeztu zuen joan den irailaren 17an Durangoko Plateruena Kafe Antzokian. Aurkezpen ekitaldian, besteak beste, Rober Gutiérrez elkarteko zuzendari, Beñat Gaztelu-urrutia Plateruena Kafe Antzokiko kudeatzailea, Idurre Maortua Ibaizabal Ikastolako zuzendaria, Mikel Irizar Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko presidentea eta Santi Reyes + Dendak elkarteko kudeatzailea izan ziren.

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak 2012 urterako ezarritako erronketako bat Bizkaian ziurtagiri kopurua areagotzea da. Lehenatasunezkoa da, Ziurtagiria daukaten entitateen artean % 14 baino ez baitira bizkaitarrak –hain zuzen, 203. Eta horien artean, 25 dira Durangaldeakoak–.

Urrats Biziak Bizkaian kanpaina horretara dator, Bizkaiko alor sozio-ekonomikoaren euskalduntzean eragitera eta Bizkaian Ziurtagiri kopurua areagotzera. Kanpaina Durangaldean abiatu da, eta 2013ko otsaila bitartean antzeko egitasmoak gauzatuko dira Getxon, Portugaleten, Basaurin, Txorierrin eta Bilbon.

Durangaldeko kanpaina iraila eta urria bitartean gauzatuko da. Hilabete horietan eskualdeko enpresa, elkarte eta entitateak bisitatuko dituzte “alor sozio-ekonomikoak betetzen dituen espazioetan euskarari lekua egiten jarraitzeko”.

Egungo testuinguru ekonomikoan Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendariak hausnarketa hau egin zuen.

“Lehen begiradan badirudi krisi-garaian enpresek gastuak murrizteko izaten duten filosofiaren aurka doala Ziurtagiria. Ez da horrela, ordea, Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duten entitateek beren jarduna lehiakorrago egin dutela onartu baitute”. Horrela, euskararen inbertitzeko deialdia egin zuen “enpresentzat, komertzio txikientzat edota bestelako entitateentzat lagungarria delako euskara bere antolamenduan txertatzeko neurriak eskuratzea”.

Plateruena eta Ibaizabal

Kanpaina aurkeztu ondoren, elkarteko zuzendariak Bai Euskarari Ziurtagiri bana eman zien Plateruena Kafe Antzokiari eta Ibaizabal Ikastolari, hain zuzen, Beñat Gaztelu-urrutia Kafe Antzokiko kudeatzaileari eta Idurre Maortua ikastolako zuzendariari. Lehenak, Zerbitzua euskaraz maila eskuratu du, eta bigarrenak, Bidean maila.

Beñat Gaztelu-urrutiaren esanetan, Ziurtagiriak domino efektua sortzen du eta oso tresna baliagarria da. “Guk behintzat, euskararen alorrean ikusi



dugu zer hobetua badaukagula, esate baterako, hornitzaileekin, profesionalen eta elkarte ezberdinekin harremanak euskaraz finkatzeko. Edozein kasutan, prest gaude Ziurtagiriarekin batera urratsak emateko”.

Prentsaurrekoa Mikel Irizar Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko presidentea izan zen. Euskararen normalizaziorako aldeketasuna behar-beharrezkoa dela aipatu du, eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak horretarako baldintzak jartzen dituela nabarmendu du. Era berean, elkarlanerako bideak zabaltzearen alde agertu da.

bidera
zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa
Itzulpenak-Aholkularitza
Publizitatea-Dei zentroa



berria
taldea

ESKATU DOAN BAI EUSKARARI BULETINA

Dagoeneko sei hilabete pasa dira Bai Euskarari Buletina bidaltzen hasi ginenetik. Sei hilabete horietan, Ziurtagiridunek eta harpidetza egitea eskatu dutenek bi astetik behin jasotzen dute bulletina postontzi elektronikoan. Bertan, Bai Euskarari Ziurtagiriaren, Ziurtagiridunen eta euskararen inguruko berriak jasotzen dituzte.

Oraindik ez baduzu Bai Euskarari Buletina jasotzen, sar zaitez gure webgunean (www.baieuskarari.org) eta bete formularioa edota bidali e-posta bat bulletina jaso nahi duzula adieraziz info@baieuskarari.org helbide elektronikora.

ERABAKI POLITIKOEN ERAGINA HIZKUNTZEN KUDEAKETAN

Zorrak, murrizketak, inbertsioak egiteko baliabide eskasia, proiektu berriak martxan jartzeko ezintasuna eta dagoneko abian direnak babesteko arazo ekonomikoak. Udal askoren egunerokotasuna da hori. Zorionez, guztia ez da diru kontua izaten eta badira Administrazioentzat diru kosturik ez duten erabaki politikoak, oso eraginkorrak direnak hizkuntzaren ikuspegitik. Ikusi besterik ez dago **Tolosako Udalak** hartutako erabakia eta eraikuntza sektoreko enpresengan izandako eragina. Izan ere, herrian egin beharreko lanak zein enpresari esleitu erabakitzerakoan euskara baloratzen du Tolosako Udalak. Administrazioari kostu ekonomikorik ekarriko ez dion erabaki politikoa, alegia. Eta, noski, enpresetako arduradunek hizkuntzaren gaia aintzat hartu eta egiten duten euskararen erabileran arreta jarri dute. Euskararen inbertitu dute negozio bideak irekiko dizkielako, etekinak emango dizkielako.

Tolosako Udalak, **Tolosa Lantzen S.A.** enpresa publikoaren bitartez, "Berazubi" estadioaren birgaitze eta eraikitzeko obrak prozedura irekiaz kontratatzeke lehen fasea onartu du. Kontratatziorako **baldintza pleguan** jasotzen denez, euskararen erabilera kreditatzen duten enpresak 4 puntu arte baloratuko dira. Hots, **Bai Euskarari Ziurtagiria** dutela erakusten duten enpresei 4 puntu emango zaizkie. Aldiz, ziurtagiririk ez duten enpresek ez dute punturik jasoko alor honetan.



Obra esleitzeko garaian baloratuko diren beste batzuk dira: eskaintza ekonomikoa (55 punturaino), berdintasuna (4 punturaino), eskaintzaren balio teknikoa (27 punturaino) eta hobekuntzak edo eraiketa ondorengo zerbitzua (10 punturaino).

Tolosako adibide honek argi erakusten digu enpresek euskararen inbertitzen dutenean (berdintasunean, segurtasunean, giza baliabidean eta beste alor askotan egiten duten bezala) Administrazioek jokaera hori saritzen dutela.

Honen harira, **Arabako Foru Aldundiak** errepideen kudeaketa esleitzeko du epe motzean. Aintzat hartuko du hizkuntzaren irizpidea enpresaren hautaketa prozesuan? Tolosako Udalaren antzera jokatu du? Eta gainontzeko Udal eta Administrazioek, zein jarrera hartuko dute?

Arkaitz Illarramendi, Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko teknikaria.



Leitzaran Grafika, S.L.
Martin Ugo de Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala



ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org



@baieuskarari



www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria



www.baisarean.org

urrats biziak

